



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

*Kabinetearen eta Gizarte
Hedabideen Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

*Dirección de Gabinete y Medios
de Comunicación Social*

ABENDUAREN 29KO 3/2004 LEGEAN AURREIKUSITAKO ORDAINKETA-EPEAK BETETZEAREN EGIAZTAPENA

Onuraduna	IFK
Legezko ordezkaria	NAN

Behean sinatzen duenak, emandako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu behar duen dokumentazioari dagokionez, eguneroko informazioa ematen duten komunikabide profesionalek zabaltzen dituzten edukiak sortzean, lantzean eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa minimizatzeko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko apirilaren 30eko Aginduaren 2025erako dirulaguntzen deialdiarekin bat etorritz, honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

Ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, bereziki Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua. Horren arabera, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutako irabazi-asmoa duten zuzenbide publikoko erakundeez besteko pertsona fisiko eta juridikoek egiaztatu beharko dute aipatutako legean ezartzen diren ordainketa-epeak betetzen dituztela.

Merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuaren barruan dago.

Abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila honako frogabide honen bidez egiaztatzen da:

(Hautatu A edo B aukera, adierazteko zer dokumentu erantsiko zaion egiaztapen honi)

A) Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak (*) (hautatu dagokion aukera):

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3bis artikuluan aurreikusitakoa betetzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria (I. Eranskina) eskatzaileak sinatutako **erantzukizunpeko adierazpena**, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen diren adierazten duena.

B aukerako frogabideen bidez egiaztatzen da (hautatu dagokion aukera)



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

*Kabinetearen eta Gizarte
Hedabideen Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

*Dirección de Gabinete y Medios
de Comunicación Social*

B) Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoak. Honekin batera doa (hautatu dagokion aukera):

Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreak emandako **ziurtagiria**, ikuskatutako azken urteko kontuen memorian deskribatutako ordainketen arloko informazioaren transkripzio xehatua jasotzen duena eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila iristen duena.

Adostutako Prozeduren Txostena, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek egina. Txosten horrek, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeke dauden fakturen lagin adierazgarri bat berrikusia, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak zenbateraino bete diren ondorioztatzen du.

..... (e)n,..... (e)ko..... aren..... (e)(a)n.

(*) Galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ahal izango dute, ekitaldi-itxieran honako baldintza hauetako bi betetzen dituzten erakundeek: Aktiboaren partiden guztizkoa 11.400.000 eurotik gorakoa ez izatea. Ondorio horietarako, guztizko aktibotzat hartuko da balantzearen eredian agertzen den guztizkoa; urteko negozio-zifraren zenbateko garbia 22.800.000 eurotik gorakoa ez izatea; ekitaldian enplegatutako langileen batez besteko kopurua 250 eurotik gorakoa ez izatea.